



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa

Musika eta pintorea buztartu egiten dira Abellanedan

Abellanedan, 2012ko uzatailaren 3a. Musikak eta pinturak modu berezian buztartu ziran domekan Abellanedan. Asko idatzi da musikeak pinturarean ganean dauen eraginaz eta bion artean dagoan lotureaz. Eta zer esan musika emonaldi bat entzuteak eragiten dauenaz erakusketaren bat ikusten dan artean, edo alderantziz. Arte biok gozatzeko eta une atseginak pasatzeko sortuak dira. Arte biok alkarregaz batera gozatzeko zoriona eragin leikie, erabateko zoriona izan leitekena. Edo galdetu bestela “Ismael Fidalgo. Margolari espresionistaren abentura” izeneko erakusketea eta “The Playful Ensemble” laukotearen kontzertua buztatuta gozatzeko aukerea izan ebenei.

Laukote bilbotar horrek Sopuertan dagoan Abellanedako Enkarterrietako Museoko areto nagusian jo eban Ismael Fidalgo margolariaren erakusketako 100 artelanak soinu klasikoez hornitzeko. Erakusketa horrek Sopuertan jaiotako “meatzarien margolari” zanaren omenaldi izan gura dau eta 2013ko urtarrilera arte egongo da ikusgai.

Musika saioa Enkartur-Enkarterriko turismorako alkarteak antolatutako “Saboreart” ekitaldiaren parte da, eta horri esker eskualdeko hainbat lekutan musika-saioak izango dira belarrien gozamenerako. Kandinsky margolariak esan ebanez, “Koadro batek sinfonia baten moduan egon behar dau eratuta, eta zentzumenen eta koloreen sinfonia balitz lez ikusi behar da.” Teoria hori haratago erroteko balio izan eban, zalantza barik, Enkarterrietako Museoak eta Enkarturrek egindako apustu horrek. Arte bion arteko buztarketea inoiz baino gehiago nabaritu zan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa

Música y pintura se funden en Abellaneda

Abellaneda, a 3 de julio de 2012. La música y la pintura moldearon el domingo en Abellaneda una obra muy especial. Muchas teorías se han escrito sobre la influencia que ejerce la música sobre la pintura y la relación que existe entre ellas. Y qué decir de la influencia que puede ejercer un concierto musical, mientras se contempla una exposición, o al revés. Ambos artes están creados para el disfrute y el placer. Los dos combinados al mismo tiempo, pueden llegar a conseguir un feliz estado de gracia o directamente la plena felicidad. Y si no que se lo pregunten a los que asistieron al encuentro entre la exposición "Ismael Fidalgo. La aventura de un pintor expresionista" y la propuesta musical del cuarteto "The Playful Ensemble".

El grupo bilbaíno actuó en la sala principal del Museo de las Encartaciones en Abellaneda (Sopuerta), para armonizar con sus sonidos clásicos las más de 100 obras de Ismael Fidalgo, en una retrospectiva sobre la obra del "pintor de las minas", natural de Sopuerta, que estará abierta hasta enero de 2013.

La sesión musical se enmarca en la iniciativa "Saboreart" de Enkarter, la asociación de turismo de las Encartaciones, que hasta el próximo 27 de julio inundará de veladas de música distintos lugares y establecimientos de la comarca. Ya lo dijo Kandinsky: "Un cuadro debe estar compuesto como una sinfonía, y debe percibirse como una sinfonía de los sentidos y de los colores". Sin duda, la apuesta del Museo de las Encartaciones y Enkarter sirvió para ir más allá de esta teoría. La comunión entre ambas artes se sintió más que nunca.